

EUSKADIKO EGOITZA JUDIZIAL ELEKTRONIKOAREN ZERBITZUEN KARTA



<https://egoitza.justizia.eus>

Euskadiko Egoitza Judizial Elektronikoa herritarrek eta profesionalak telekomunikazio sareen bitartez eskura duten helbide elektronikoa da. Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio, Justizia Administrazioaren arloan dituen eskumenen egikaritzan, egoitzaren titulartasuna eta kudeaketa.

Helbide elektronikorren bitartez herritarrek eta profesionalak Justizia Administrazioaren jardunak, zerbitzuak eta izapideak egikaritu ditzakete, 18/20 Legea, uztailaren 5ekoa, Justizia Administrazioan Informazio eta Komunikazio teknologien Erabilera Arautzen duenak ezarritakoaren arabera.

Bere eskumen-eremua Euskadiko Autonomia Erkidegoa da eta kudeaketaren arduradunak izango dira helburu horrekin Eusko Jaurlaritzak izendatutako administrazio-organismoak. Era berean, edukien ardura informazioa sortu duen organoari dagokio.

Zerbitzuen araudi erregulatzaileria

18/2011 Legea, uztailaren 5ekoa, Justizia Administrazioan Informazio eta Komunikazio teknologien Erabilera Arautzen duenak Egoitza Judizial Elektronikoa eratzeko eremua ezartzen du, ezaugarriak zehazten ditu, baita edukiak eta bere baitan bildu behar dituen zerbitzuak ere.

Araudi horren arabera, 2020ko uztailaren 24ko Aginduak Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuari dagokion Egoitza Elektronikoa sortu da.

[Euskadiko Egoitza Judizial Elektronikoa erregulatzen duen araudira sarbidea.](#)

egoitza.justizia.eus-en zerbitzuen elektronikoen katalogoa

Euskadiko Egoitza Judizial Elektronikoari buruzko informazioa 2020ko uztailaren 24ko Aginduaren arabera.

Erregistro Zibileko izapideak eta zerbitzuak:

Jaiotza-, ezkontza- eta heriotza-ziurtagiriak

Bizi- eta egoera-agiria

Jaiotza-inskripzioa

Ezkontza-inskripzioa

Heriotza-inskripzioa

Ezkontza zibilaren eskaera

Izen-aldaketa

Deitura-aldaketa

Nazionalitatearen eskaera

Herritarrentzako beste zerbitzu eta izapideak:

Erreklamazioak eta iradokizunak

Zure izapideen egoera ikusi

Dokumentuak EKS bitartez egiaztatu

Prozedura monitorioa eta munta txikiko hitzezko prozedura

Apud acta ahalordea

Doako Justizia

Enkante judizial elektronikoa

Salaketak

Babes-aginduak

Diru-sarrerak epaitegien kontuan
Zigor-aurrekarien ziurtagiria
Izaera sexualeko delituen egiaztatzea
Hautaketa-prozesu baten egoera kontsultatu
Hipoteka-bitartekaritza
Itzulpen juridikoak euskarara

Profesionalentzako zerbitzu eta izapideak:

PSP – Euskadi eta JustiziaSip komunikazio elektronikoen kudeaketa plataformara sarbidea, bere baitan profesionalentzako hurrengo zerbitzuak biltzen dituena:

PSP - Euskadi

Abiarazteko eta izapidetzeko idazki mota guztien aurkezpen telematikoa.

Espediente judizial elektronikoetarako (EJE) eta horien dokumentazio osorako sarbide osoa, ikustaldien grabazioak barne.

Organo judizialek eta fiskaltzak egindako jakinarazpen telematikoak sinatzea eta eskuratzea.

Gaitutako erabiltzaileen kudeaketa autonomia.

Jasotako jakinarazpenen, zirriborro-idazkien eta aldeei egindako kopien kudeaketaren abisuak, eta espedienteen egoeraren eguneratzeak, besteak beste.

Rol mota bakoitzaren beste funtzionalitate eskusibo batzuk (kontsultatu eskuz).

JustiziaSip

Izapide-idazkien aurkezpen telematikoa.

Espedientearen izapidetze-egoerara profesionalentzako sarbidea.

Espediente bateko ikustaldien grabaketak ikusteko aukera.

Idazki bat itzultzen denean edo jakinarazpen berri bat bidaltzen denean espediente judizialari lotutako aldaketekin lotutako jakinarazpenak.

Espediente batean egindako aldaketekin lotutako jakinarazpenak

Baldintza teknikoak

Nabigatzaileen azken bertsioa behar da Microsoft-eko Internet Explorer edo Edge, Google Chrome edo Mozilla Firefox.

Herritarren eremura edo profesionalen eremura sartzeko (JustiziaSip) ziurtagiri digitala ezinbestekoa da.

[Herritarren eremuan sartzeko ekipoa konfiguratzeko jarraibideak eta gutxieneko baldintzak.](#)

[Profesionalen eremuan sartzeko ekipoa konfiguratzeko jarraibideak eta gutxieneko baldintzak \(JustiziaSip\).](#)

Kalitatea, erabilerraztasuna eta zerbitzuen erabilgarritasuna

Euskadiko Egoitza Judizial Elektronikoan argitaratutako zerbitzuek eta edukiek 18/2011 Legea, uztailaren 5ekoa, Justizia Administrazioan Informazio eta Komunikazio teknologien Erabilera Auzten duenetik eratorritako iragarki, ardura, kalitate, segurtasun, eskuragarritasun, erabilerraztasun, neutraltasun eta elkarreragingarritasun irizpideak beteko dituzte.

Euskadiko Egoitza Judizial elektronikoak erabiltzen duen informazio guztiaren konfidentzialtasuna, eskuragarritasuna eta osotasuna bermatu beharko ditu, uztailaren 5eko 18/2011 Legetik eratorritako segurtasun irizpideak jarraituz.

Era berean, Euskadiko Egoitza Judizial Elektronikoak datu pertsonalen babeserako araudian ezarritako segurtasun neurriak ezarriko ditu, jasotzen dituen izaera pertsonaleko datuen tratamenduan.

[Euskadiko Egoitza Judizial Elektronikoaren pribatutasun ezarpenetara sarbidea.](#)

Herritarrei eskainitako zerbitzuak eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan egongo dira eskuragarri, mantentze-lan teknikoak egon ezik.

Web atari honetako orriek WAI erakundeak (Web Accesibility Initiative) ezarritako erabilerraztasun irizpideak jarraitu dituzte.

[JustiziaEus eta Euskadiko Egoitza Judizial Elektronikoaren erabilerraztasunari buruzko informaziora sarbidea.](#)

Erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko bitartekoak

Egoitza Judizial Elektronikoaren bitartez Euskadiko Justizia Administrazioarekin lotutako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu daitezke. Zerbitzua edozein herritarrentzat edo Justiziako profesionalentzat eskuragarri dago.

[Erreklamazio eta iradokizun bat telematikoki aurkezteko zerbitzura sarbidea.](#)

Erreklamazioak edo iradokizunak aurrez aurre ere aurkeztu daitezke epaitegi edo auzitegietan, agintaritzaren organoetan, Herritarren arretarako bulegoetan (Justizia Jauregietan daude), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian, Justizia Ministerioan eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioetan.

